

[2017ko abuztuaren 11ko Batzordearen 2017/1469 EBren Egikaritzapen Erregelamenduan ezartzen denaren arabera, La Previsión Mallorca etxeak ospitaleratzeke poliza baten hartzaileari ondorengo informazio-dokumentu normalizatua ematen dio, kontratuaren zati ez dena eta poliza sinatu aurretik kontsultatu beharrekoa]

Zertan datza aseguru mota hau?

Aseguru honek kalte-ordain bat bermatzen dio aseguratuari bere lana ezin badu egin laneko bajako egoeran jarraitzea behartzen duen erabateko aldi baterako ezintasun bat eragiten dion gaixotasun edo istripu baten ondorioz.



Zer asegurutzen da?

- ✓ Gaixotasunagatiko erabateko lanerako ezintasuna
- ✓ Istripuagatiko lanerako erabateko ezintasuna
- ✓ Aseguratuak edo asegurua kontratatzaileak horrela adierazten badu, gaixotasunak eskusiboki eragindako erabateko aldi baterako ezintasuna.



Zer ez dago aseguratuta?

Aldez aurreko gaixotasunei lotutako erabateko aldi baterako laneko ezintasuna. Honako hauek dira aldez aurreko gaixotasunak:

- ✗ Kontratua sinatzean aseguratuak dituen gaixotasunak.
- ✗ Kontratua sinatu aurreko gaixotasun edo lesio baten ondorio diren gaixotasunak.

Honako hauek eragindako erabateko aldi baterako ezintasuna:

- ✗ Gerra, epidemia eta/edo pandemia edo hondamendia
- ✗ Toxikomania
- ✗ Fibromialgia
- ✗ Neke kronikoaren sindromea
- ✗ Edari alkoholikoen kontsumoaren ondoriozko gaixotasunak.
- ✗ Ospitaleratzea eskatzen ez duten buruko gaixotasunak.
- ✗ HIESa eta GIBa.



Badago murrizketarik estaldurari dagokionez?

- ! Borondatezko frankizia-denbora, kontratua sinatzeko garaian kontratatzaileak aukeratzen duena. Borondatezko frankiziari esker asegurua estaldura ez da indarrean hasten gaixotasuna edo istripuaren unean ez beharra izanez gero, eta, aitzitik, kontratatzaileak hautatutako denbora baten buruan hasten da.
- ! Kontratuak baztertzen ez badu, haurdunaldiak, abortuak, erditzeak edo zesak eragindako erabateko aldi baterako ezintasuna, honako muga hauekin



- 1) Haurdunaldia, erditzea edo zesarea estalduratik kanpo daude kontratuaren lehenengo urtean.
 - 2) Haurdunaldiko hilabeteetan, polizia honek gehienez 45 eguneko estaldura eskatzen du.
 - 3) Erditzearen edo zesarearen ondoren, eguneko subsidioko 20 eguni dagokien diru-kopuru bakarreko ordainketa bermatzen da, erditzearen edo zesarearen ondorio diren gaixotasunen salbuespenarekin. Kasu horretan luzatzeko aukera izango da, gehienez 45 eguneraino, bermatutako 20 egunak barne.
- ! Aseguratua psikiatriko batean ospitaleratuta egotera behartzen duten gaixotasunak, gehienez ere, 90 egunez estaliko dira.



Non nago estalita?

- ✓ Zure lan-bajako aseguruak munduko estaldura dauka



Zein dira nire betebeharrak?

- Konpainiari jakinaraztea lan-jardueran edo lan egiteko eran edo lan-lekuan izandako aldaketak.
- Osasunari buruzko galde-sorta zehatz, zintzo eta informaziorik ezkutatu gabe erantzutea eta sinatzea.
- Konpainiari aldi baterako lan-bajaren hasieraren berri ematea, dokumentu mediko balioduna aurkeztuz bajaren zazpi egun bete baino lehen.
- Konpainiari dagokion peritaje medikoa egiteko baimena ematea, eta lan-bajaren gorabehera eta ondorioei buruzko txosten medikoak aurkeztea.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

- Poliza honen prezioa urtekoa da, eta hiruhileko eta seiuhileko epeetan ordain daiteke.
- Eskuarki onartutako bitartekoen bitartez egingo da ordainketa, La Previsión Mallorquina etxeari zuzenean edo poliza formalizatzeko hautatutako aseguru-bitartekariaren bitartez.



Noiz hasten da eta noiz amaitzen da estaldura?

- Estaldura kontratua hasten den egunean hasten da, gutxienez urtebeteko iraupena dauka, eta urtero berritzen da automatikoki. Kontratua amaitzen den egunean bukatzen da.
- Kontratua automatikoki ezereztzen da aseguratuak 70 urte betetzen dituenean, bere lan-jarduera guztia eteten duenean, erretiroa hartzen duenean edo langabeziara igarotzen denean.
- Aldi baterako laneko baja iraunkor bihurtzen denean ere ezereztzen da, edo asegurua kontratatzaileak ordainketari aurre egiten ez dienean.



Nola hutsal dezaket kontratua?

- Poliza aseguratzeko hautatu dudak aseguru-bitartekari edo konpainiari jakinaraziz idazki baten bitartez, posta arruntez edo elektronikoz: clientes@previsionmallorquina.com, gutxienez hilabete bat kontratua amaitu baino lehen.
- Kasu berezia: zure asegurua urrundik kontratatu baduzu, lehenengo 14 egunetan ezereztu dezakezu komunikazio idatzi bat bidaliz.